

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**BIZKAIKO
ESPERIENTZIA
GELAK
AULAS DE LA
EXPERIENCIA
DE BIZKAIA**

IRASKAGAIAREN TITULUA/ TÍTULO ASIGNATURA: **TXISTUKA ¿SIEMPRE
QUISISTE APRENDER A TOCAR EL TXISTU? AHORA TIENES LA OPORTUNIDAD**

Irakaslea/Profesor: Iñaki Loroño

Irakasgaiaren azalpena/ Descripción de la asignatura

Ikas ezazu txistuarekin doinu herrikoi eta errazak jotzen, era atsegin eta dibertigarri batean, irakasleak sortutako metodoa erabilita.

Gaitasunak/Competencias

Ikasgaiaren eskuratzen diren gaitasunak:

- Partituren oinarritzko irakurketa (solfeoa, musika hizkuntza)
- Musikaren oinarritzko teoria
- Txistuaren eskalak jotzea
- Txistuaren oinarritzko artikulazioa
- Doinu errazak jotzea txistuarekin
- Irakasleak gai izango dira bigarren lauhilekoko "Txistu II" irakasgaiarekin jarraitzeko, edo musika eskola batera jo ahal izango dute, musika hizkuntza (solfeoa) lantzen eta txistua jotzen ikasten jarraitzera.

Gomendatzen da bigarren lauhilekoko "Txistu II" irakasgaiarekin jarraitzea, ikasitakoa sendotzeko eta aurrera egiteko. Horrela, udako oporren ondoren, berme handiagoarekin hasi ahal izango dira ikasketa arautuak musika eskola edo kontserbatorio batean.

Edukiak/Contenidos

- Musika irakurketaren eta teoriaren oinarriko ezagutzak.
- Txistua ezagutzea (musika tresnari nola heldu, oinarriko artikulazioa eta digitazioa).
- Doinu errazak interpretatzea.

Metodologia/Metodología

Metodologia oinarritzen da ikaste prozesua ikasleekin koordinatzean, irakasleak sortutako sistema baten bidez, ikasle bakoitzak bere etxean bere kabuz ikas dezan. Horretarako, melodiak emango zaizkie, eta solfeo eta txistu ariketak, paperean eta edozein gailutarako (ordenagailua, telefonoa, tableta, etab.) balio duten fitxategietan, marka eta plataforma gorabehera (Mac, Android edo Windows). Ez da informatikaz jakin behar eta nahikoa da klik egitea abiarazteko eta gelditzeko Nahi den lekuan has daiteke, abiadurak aldatu, etab., ikaslearen beharren arabera.

Ikasleek behar dute fa notan afinatutako txistu bat (ohikoa), edo ikasteko txistu berezi bat erosi behar dute (30 euro).

Ez erosi ezer irakaslearekin hitz egin aurretik.

Ebaluazio sistema/ Sistema de evaluación

Etengabeko ebaluazioa

Bibliografia/Bibliografía

Zati bat entregatzen zaie ikasleei ikasgaiaren hasieran; ondoren, ikasle bakoitzaren aurrerapen mailaren arabera, material gehiago emango zaie, modu pertsonalizatuan.